

TURISMO, MERKATARITZA
ETA KONTSUMO
ESTRATEGIKO PLANA
PLAN ESTRATÉGICO DE
TURISMO, COMERCIO
Y CONSUMO
2017-2020



Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

TURISMO, MERKATARITZA
ETA KONTSUMO SAILA

DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO




Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Plan Estrategikoa 2017 - 2020
Eusko Jaurlaritzak Giza Garapen Iraunkorrarekin hartua duen konpromisoaren barruan kokatzen da. Enplegua, Ekonomiaren susperraldia eta Iraunkortasuna dira bere erreferentzia.

TMKPE 2017-2020

- *Gobernu Programaren 1. oinarrian oinarritzen da*
- *I. ardatzean kokatzen da (1. Hazkunde irmoa enplegu gehiagorekin eta hobeagoarekin)*
- *28, 29, 30, 31 eta 32. konpromisoei lotzen zaie:*
 - *Bikaintasuna eta iraunkortasuna bultzatzea euskal turismoaren jardueran*
 - *Turismo esperientzialaren aldeko apustua*
 - *Turismoaren herrialde-marka, Euskadi Basque Country*
 - *Euskal merkataritza-sektorearen lehiakortasunaren sustapena*
 - *Kontsumobide - Kontsumoko Euskal Institutua*




Turismoa





Turismoa




5.
Sektorearen prestakuntza- eta lehiakortasun-baldintzak bultzatzea

Euskal turismo-industriaren oparotasuna lortzeko, beharrezkoak dira enpresentzako baldintza egokiak, giza kapital egokia, azpiegitura bikainak, eskarirako baldintza positiboak eta administrazioaren erraztasunak.



6.
Lurraldeko turismo-kudeaketaren eredu hobetzea

Euskadin, turismoa hiriburuetan eta kostaldean dago bilduta nagusiki. Lurraldeak turismo-plangintza integrala behar du, fluxuak lurralde osoan banatzeko. Lurralde Plan Sektorial bat garatzea funtsezkoa izango da bikaintasuna lortzeko.



7.
Kudeaketa- eta gobernantza-eredu berri bat sustatzea

Euskadik gobernantza-sistema berri bat garatu behar du turismoak dituen eta garrantzi ekonomiko, sozial eta politiko handia duten erronkei aurre egiteko. Horretarako, industriako eta administrazioiko funtsezko eragile guztiak inplikatu behar ditu.



Merkataritza

HELBURUAK ETA LAN-EREMUAK

1	Sektorearen modernizazioa eta gaztetzea	2	Enpresa-lehiakortasuna	3	Hiri-inguruneen merkataritza-kudeaketa	4	Sektorean eta lurraldean islatzea
<p>Euskal merkataritzak zeregin egituratzaile garrantzitsua betetzen du gure ekonomian, gizartean eta gure hiriguneetan. Hala ere, errealitate horren pertzepzio soziala urria da gaur egun, eta horrek ez du laguntzen sektorean talentu eraldatzailea erakartzen.</p>		<p>Ezaugarri bereizgarri gisa kontsumitzaile espezializatu eta multikanalak eta errealitate globalizatu bat dituen merkataritza-aro berri honetan, enpresa-kudeaketak sektorerako egokitutako tresna eta eredu berriak behar ditu.</p>		<p>Hiri-ekonomiaren osiera aldatu egin da. Tokiko merkataritzak marka handien aldean indarra galdu izanaren, hirugarren sektoreko eragile berrien agerpenaren eta auzoen merkataritza-rolaren ondorioz, hiri-inguruneen kudeaketaren ikuspegi berri bat bilatu beharra dago.</p>		<p>Aukera berri horien aurrean, garrantzitsua da politikak ahalik eta eraginkortasun eta efizientziarik handienarekin sektorerako eramatea eta bertan integratu eta koordinatzea, gaur egun sektorearen alde diharduten elkarte-sarea eta giza kapitala optimizatzea eta lankidetzaren publiko/pribatua bultzatzea.</p>	
1. HELBURUA		2. HELBURUA		3. HELBURUA		4. HELBURUA	
<p>Irudi eta pertzepzio soziala eraldatzea, ospe profesionala ematea eta enpresen modernizazioa eta gaztetzea sustatzea, lehiakortasuna pixkanaka hobetzeko.</p>		<p>Sektoreko enpresa-lehiakortasuna bultzatzea kudeaketa-estandarrok oro har hobetzearen, digitalizazioaren, omnikanalitate-ferestuingurura egokitzearen eta enpleguen konpetentziak sendotzearen bidez.</p>		<p>Lurraldeaz politikak bateratzeko gune gisa jaso behar den pertzepzioa bultzatzea. Hiri-inguruneetako merkataritza-kudeaketan sakontzea esku-hartzeak aberastu eta bereiztearen bidez.</p>		<p>Merkataritza-politiken eraginkortasuna hobetzea, eta, horretarako, politika horien diseinuan, aplikazioan eta jarraipenean lidergo publikoa sendotzea eta horretarako eskuragarri dauden giza baliabideak eta baliabide teknikoak sendotzea eta operatiboki optimizatzea.</p>	



Kontsumoa

Gidalerroa	Xedea
1. Informazioa eta prestakuntza	Mekanismoak garatzea kontsumitzaileak eta erabiltzaileak orientatu, prestatu eta informatzeko beren eskubideei eta eskubide horiek erabiltzeko moduei buruz.
2. Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen defentsa	Kontsumitzaileekiko eta erabiltzaileekiko errespetu handiagoa sustatzea kontsumo-ikuskaritzaren bitartez.
3. Gatazken ebazpena	Kontsumoko bitartekaritza eta arbitrajea sustatzea kontsumoaren arloan gertatzen diren gatazkek prebenituz eta bizkor, eraginkortasunez eta egokiro ebatziz, eta borondatezko ebazpena eta euskal kontsumoko arbitraje-sistemaren garapena bultzatuz.
4. Lankidetzarako eta elkarlanerako sareak	Lankidetzeta eta elkarlana bultzatzea funtsezko erakundeekin.



GOBERNANTZA, KONTU-EMATEA

Koordinazioa sailen artean eta instituzioen artean.

Koordinazioa Foru Aldundiekin eta Euskal Udalekin, Merkataritza Ganberekin eta sektoreko eragileekin.

TMKPE 2017-2020ren kudeaketa Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren bultzadaren eta lidergoaren pean planteatzen da.

TMKPE 2017-2020k Planaren urteroko jarraipena egitea aurreikusi du, testuinguruaren, jarduketaren eta inpaktuaren adierazle-sistema baten bitartez Planaren betearazpena monitorizatu eta aztertzeko.

Bestalde, aurreikusita dago 2017-2020 aldirako Planaren azken balantze global bat egitea.





153,6 MILIOI 2017-2020 ALDIRAKO

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailari dagozkion aurrekontu-baliabideez gain, Euskal Merkataritzaren 2017-2020 Gida Planak Espainiako Gobernuak Autonomia Erkidegoen eskueran jarritako partidak ere jaso ahal izango ditu, Europako funtsen bitartez, barne-turismo eta -merkataritza sektoreen garapena bultzatzeko.

Onartutako bi aurrekontuetan oinarrituta zenbatesten da aurrekontua, baita aurreikusitako urteko % 1,2ko batez besteko hazkundean ere, ekitaldi bakoitzeko onartutako aurrekontuaren arabera.

TURISMO, MERKATARITZA
ETA KONTSUMO
ESTRATEGIKO PLANA
PLAN ESTRATÉGICO DE
TURISMO, COMERCIO
Y CONSUMO
2017-2020



Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

TURISMO, MERKATARITZA
ETA KONTSUMO SAILA

DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO